

U.E.U.k prestatutako ekintza extra-akademikoen barnean kokaturik

Mikel Laboa edo sensibilitatez beteriko ahots arkaikoa

Euskal Unibertsitatea bilakatu zen egun batean bizigai eta ordutik hona, badira hamabost urte, arlo guztietako gaiak aztertzeari ekin dio, noizbait Euskal Herriko unibertsitatea berau izango delakoan. Bainan dena ez da liburu tartean egotea edota salmonella dela eta, ahalik eta azkarren gela "berezi" batetara joatea. Bada burua distraitzeko gauzarik: antzerkia, bertsoak edota kantaldiren bat. Honela, bada, beti atsegina gertatzen den Mikel Laboaren ahotsa entzun ahal izan genuen lehengo astearte gauean, Gayarre antzestokian. Ez baita komenigarria osasunerako gehiegi pensatzea eta ezin hobegorik horretarako, Laboak eta bere taldeak eskeinitako ekitaldia. Zoratzeko modukoa benetan.

PILAR GOYA

Gayarreraren kanpoan ginenak sarerak erosi ahal izateko leihatila noiz irikiko ote zen zai geundela, ara nondik zabaldu ziren paradisuako ateak (edo inpernuokoak, Jainkoak daki), inongo oztoporik gabe. Arriduraz beteriko ahotsak entzun ziren eta "gero, poteren bat hartzeko dirurik izanen dut" antzeko esaldiak ere. Ez da harritzekoa, zeren Mikel Laboa entzuteko aukera izan eta gainera doanik ez da ezer gertatu ez balitz bezala gelditzea.

Askotan etorri da Iruñeara eta Gayarre bertan ere kantatu izan du. Duela denbora asko, hogei-tamar bat urte edo, oraindik euskaraz abesten ez zuenean, "Only you" eta antzekoak kantatzen zituen. "Egia esan, "Only you" bakarrik esaten nuen ingelesez, nik ez bait dakit ingelesez mintzatzen eta berdina egiten nuen portugesearekin, "Lisboa" hitza esan eta beste guztia erabat asmatu. Garai hartan Amalia Rodrigues oso gustokoa nuen". Garai hauek estudiante arteko denborak dira Mikelen oroimenean, Iruñean bost urtez bere ikasketatan zihartzuenean, frankismo garaia, euskaraz kantatzea galerazita edo ia ezinena zenean. "Iruñean nengoenean, Violeta Parra, Ataulpa, Brassens eta antzekoak entzuten nituen, orduko irrati urriak musika txarra oso eskeintzen bait zuten.

Poliki poliki taldeak osatzen joan ginen eta gerora euskaraz hasi ginen. Bapatean nere buruari galdegin nion ea zertan ari nint-

zen beste herritako musikak kantatzen neure herrikoak ezagutzen ere ez nituenean, nere herriko kanta zaharrak. Hogeitabost urte badira hau gertatu zela".

Denbora mugaketaren zentzugabekeria

Eskuak izerditan edo, ahotsa dardarka aurrean duen jende mordoari hitz gutxi batzuk esaterakoan. Gezurra dirudi hainbeste urtez jendea aurrez aurre izanik kantatu izatea. Bainan hau gutxienekoa da denentzat. Bere atzekaldean duen pianoaren doinu makalak ondoren datorren kitarraren aurkezpena egiten hasten denean ez da txintik sumatzen.

Belarriak tente, bihotzak ernai, gazte eta zaharrak musikaz blai egoteko prest. Hau baita Mikelek egiten dituen kantaldien ezaggarri bat, bai gazteak eta bai zaharrak joaten direla bera entzutea, ikustera, maitatzera. Hasierako urduritasuna menderatzea lortzen du ahotsa ezarririk isuritzen den neurrian, Gayarreraren sapairano helduz, inongo mugarik ez balu bezala. Ezagunak lehen kantak, zirrara denen gorputzetan. Hippyen kontzertu bat litzatekela lioke kanpotarren bategen, denboratik at gelditzen den pasai bat, Laboaren abesti melodikoak jendeak koroa eginez amaitzen direnean. Bainan elkarrizketa baten adibidetzat jotzea hobeto legoke. "Kantatzea, besteekin komunikatzeko bide bat da, batez ere bakoitzak barruan daramanari irtenbide bat emateko ahalmena. Askotan du-



"Musika elkar komunikatzeko bide bat dugu".

BERGASA

dak sortzen zaizkitzu, hau atera-kodut, hau ez dut argitaratuko, bainan azkenean espresatzea da helburua".

Behar bada ideia honi jarraituz, Mikel Laboak euskal kantagintzaren munduan horrelako berrikuntza suposatzen duela esan daiteke. Bere abestien letrak idazleei "lapurtutakoak" dira, Aresti, Xabier Lete, Bernardo Atxaga, Bertolt Brecht eta Joseba Sarrionaindia, besteak beste. Bainan ahots jokoak, koba zulo batetik ateratako ahots arkaiko horrekin egiten dituen jokoak, erabat berriak ditugu. "Ni ez naiz aurretik erabakitako ikerketa lan batetan ari. Egia esan, konturatu gabe hasi nintzen "Baga, biga, higa"-rekin. Orduan ahotsaren jokoak eta Lekeitioko euskalkiaren doinuarekin gauzak sortzeari ekin nion. Esan nahi dut ez dudala inor espiatu eta gero kopiatu, ez. "Baga, biga, higa" egin ondoren beste abestiren bat egin nuen bide hau jarraituz. Gero "Gernika" azaldu zen, eta una horretan izan zen Ray Hart ezagutu nuenean.

Oso interesgarria iruditu zitzaidan berataz irakurri ahal izan nuena, ezagutu ahal izan nuena... Ni ez naiz ibili, ez nabil ere, ikerketa berezirik egiten baizik

eta uste dudala badagoela ohizko hizkuntzatik at beste modurik jendearekin komunikatzeko. Hort xe ditugu irrintiak eta irrintiak bezala, beste gauza asko, baita beste hizkuntzetan.

Gainera, hizkuntza gorputzean dago ere, mugimenduan, ahotsa beraren mugimenduan eta ez hitzetan bakarrik". Eta hau hitz bitan geldi ez dadin, Atxagaren "Lizardi" olerkia tango doinuaz kantatu ezazik, dantzatzu ere aurkezten du. Barrenaren espresioa azken finean.

Sei bat diska argitaratu ditu dagoeneko. Bere iritiz, gaureragun zaila izan arren, bizi daiteke euskal musika eginaz. "Hor dituzue Imanol, Ruper, Benito... batzuk besterik ez aipatzeagatik. Ez da erreza zeren Euskal Herria txikia da eta interesantea litzateke kanpora irtetzea hain mugatua ez gelditzea. Duela hamabost bat urte, orduan bai zela benetan zaila euskaraz kantatzea, galerazita bait zegoen".

Artearekin zerikusirik duen guztia ezagutzeko gura horri bete nahiaz mota guztietako musikak entzuten ditu: jazz, rock... "Ezin dut iritzi garbi bat eman orain Euskal Herrian egiten ari den musikari buruz, batez ere rock radikal horri buruz. Beti ari naiz

diskoak hartu eta lasai lasai entzuteko astiren baten bila, bainan oraingo ez dut lortu. Alde bate-tik esan dezaket erantzun bat bezala sortu dela, zeren oso une latza bizitzen ari dira gazteak bai soziologikoki eta baita politikoki. Bereaiek gure kantaldietara datozte eta gu berainetara goaz".

Gernika

Gehienetan pianoaren doinu lirikoak akonpainaturik, Inaki Xalbador zelarik berau jotzen duena, tronpetak ere bazuen bere tokia. "Broadway" abestia jotzerakoan, soinu dekadente bat balitzan, tronpetaren musikak Kurt Weill-en abestiak gogoratu arazten zizkigun.

Argi jokoek eta Laboaren ahots miresgarriak Gernikari egini-ko homenaldia gogortasunez eta minguraz betzen zuten eszenarioa. Odolez estaliriko lurrak zuri beltz zen paisaia gorri tintatzen zuen eta ahots hautsi baten soinu ulergaitza minaren espresatu ezina eta aldi berean hitzik behar ez delaren aitortpena bihurtzen zen, kitarraren doinu desafinatua, nahita melodikoa ez den doinuak, dena bildurik. Eserita egotea zail egiten zen. Ondoren etanaldia zetorren, denen lasaipenerako.